

HOSPITALITATEAK

bakerako atea zabaltzen du

2026

#hospitalitate-bideak



HOSPITALITATE-BIDEAK DEKALOGOA

“Hospitalitatearen praktika albiste ona da, eta benetako erresistentzia-eta itxaropen-ekintza profetikoa”

Alberto Ares

Gaur egun, lekualdatze behartuek aurrera jarraitzen dute gerren, gatazka armatuen, klima-aldaketaren ondorio kaltegarrien, desberdintasunen eta giza eskubideen urraketen eraginez.

Deserrotzearen dramaz ohartarazten jarraitzen dugu, baita migratzaile behartuak eta errefuxiatuak biktima dituen diskriminazioaz ere. Harrera zailtzen duten oztopo fisiko eta sozialak altxatzen dira munduko leku askotan, gero eta handiagoak dira “herrialdeen arteko eta pertsonen bihotzetako harresiak”, etxea uztera behartuak izan direnen osasun mental eta fisikoari zuzenean eraginez.

Herrialde gehienetan ezarri den sekuritizazio- eta esternalizazio-eredua hipotesi faltsu batean oinarritzen da, non pertsona migratzaileak mehatxuak baitira, eta horrek aurreiritziak indartzen ditu, kriminalizatu egiten ditu eta pertsonak indarkeria fisiko, kultural eta estrukturalen eraginpean uzten ditu. Politikak dira pertsona migratzaileak irregulartu eta zaurgarritasunean jartzen dituztenak.

Migratzaileen giza eskubideen babesgabetasunaren ondorioz, migratzearen esperientzia baliabideen prekaritate beraren erdian bizi da, eta, are gehiago, jatorrizko herrialdeetatik kanporatu zituzten indarkerien antzekoei aurre eginez.

Premiazkoa da migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak eta duintasuna babestuko dituen kultura bat sustatzea, pertsona horien giza garapena sustatuko duten ekintzak eta politikak mobilizatzea eta, urgentziaz, ahalegin kolektiboak areagotzea, migratzera behartuta egon diren pertsona guztiak euren helmuga diren herrialde guztietan integrazio eraginkorra lortu ahal izan dezaten. ¹

2026an, hospitalitateak bakerako atea zabaltzen ditu:

“Bake-kulturak elkarbizitza baketsuaren alde egiten duten balio, jarrera eta bizimoduaren multzo bat dakar berekin, gatazkak saihetsezinak direla aitortuz. Zentzu horretan, herritarren papera aktoreena da, ez soilik ikusleena, bakearen eraikuntzan, bai nazioartean, bai gure tokiko eta eguneroko testuinguruetan. Nahiz eta Bakea maiuskulaz beti gure horizontean egon, bakeak minuskulaz eraikitzen joateko zeregina dugu, nahiz eta inperfektuak izan.”²



¹ 2024an Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna ospatzeko Frantzisko Aita Santuaren mezua.

² Etorrizuna itxaropenez amestu, Espainiako Jesusen Lagundia, 2024.

01 ANAITASUN-EGINBEHARRA BETETZEA

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean ezarritako anaitasun-betebeharra praktikatzeko modu bat da hospitalitatea, giza familia handi bat bezala bizitzera gonbidatzen gaituena.

Anaitasuna bazterkeriaren, indibidualismoaren eta atzerriari diogun beldurraren kultura zabalduari emandako erantzuna da, eta gizartean urratuen dauden pertsonen aurkako indarkeriei aurre egiteko aukera ematen du. Giza harremanen ezaugarri bat da, hospitalitatearen praktiketan presente dagoena, non beste pertsonarengana maitasunetik irtetea planteatzen baita.

04 ESKUBIDEAK IZATEKO ESKUBIDEA BERMATZEA

Ospitalitatearen kultura politikoak aukera ematen digu justiziarantz aurrera egiteko, Giza Eskubideak bete-betean erabiliz.

Politika publiko iraunkorrak, integralak eta abegitsuak behar dira, eskubideak bermatuko dituztenak, diskriminazioa geldiaraziko dutenak eta migratzaileak beren historia, tradizio eta kulturarekin hartzea sustatuko dutenak. Bakeari ateak irekitzen zaizkio epe luzeko estatu-politiken bidez, pertsonen mugimendua, haien identitatea aitortuko duten dokumentuak lortzea eta, besteak beste, bizibideetarako, etxebizitzarako, hezkuntzarako eta osasunerako sarbidea bermatuko dutenak. Beren egoera juridikoa legeztatzen laguntzea, dela iragaitzazko egoeran, dela sozietateko kide gisa benetan lotzeko aukera emateko, egoera horri ekarpenak egiteko aukera ekonomiko eta sozialak baitituzte. Migrazio-estatusa alde batera utzita, giza eskubideak estatuek bermatu behar dituzte beti.

02 BABESA ESKAINTZEA ETA EZ ITZULTZEA BERMATZEA

Migratzera behartutako pertsonen nazioarteko babesa izateko eskubidea dute, eta estatuek babesa eskaini behar dute eta ez itzultzeko printzipioa bermatu behar dute.

Bakeari ateak irekitzen dizkion hospitalitateak, betebehar hori gizarteko pertsona guztiengana zabaltzen da, eta barne-muga irekitzea ere eskatzen du, etxea bera, erakundea, hiria, migratzera behartutako pertsonen bizitza eta duintasuna zentzu orotan babestua izan daitezen, eta ez soilik juridikoki; haiek hartzea, berriro indarkeriarik bizi behar izan ez dezaten.

05 EGUNEROKO JARRERAK ERALDATZEA

“Maitasuna, elkar zaintzeko keinu txikiz bete, zibila eta politikoa ere bada, eta mundu hobe bat eraikitzen saiatzen diren ekintza guztietan agertzen da”.

Bakeari atea irekitzea gonbidapen bat da, migratzen duten pertsonak zein jatorrizko, iraganbideko, helmugako eta itzulerako komunitateetakoak diskriminatzen duten jokabideak eta jarrerak eraldatzeko prest egon daitezen, askatasunetik hormak eraitea eta giza topaketa ahalbidetzea hauta dezaten.

03 INGURUNE TORTURATZAILEEKIN AMAITZEA


Hospitalitatea itxaropena da, eta benetako babesa da, giza pertsona bakoitzaren duintasuna aitortzen, berreskuratzen eta sustatzen duena.

Atxiloketa-zentroek, jatorrizko herrialdeetara edo hirugarren herrialdeetara beharrezko prozesurik gabe egindako deportazioek, politika eta praktika murriztaileek, pertsona migratzaile eta errefuxiatuen osasun fisiko eta mentalari eragiten diote: munduko migrazio gobernantzan ezarri den etsaitasunaren adierazgarri dira.

06 HAUR ETA NERABE MIGRATZAILEENTZAKO LEKU BAT ANTZEMATEA

Ospitalitateak bakeari ateak irekitzen dizkio, haur migratzaileen onarpena bermatzeko gai denean.

Etorkizuna itxaropenezkoa izango da, migratzera behartutako haur eta nerabeek beren bizi-proiektuekin jarraitzeko leku bat aurkitzea lortzen badute. Eta etorkizun hori haien ondoan eraikitzen da, migrazio-esperientzia, -amets, -proposamen eta -dueluetatik abiatuta, haiekin batera egongo den, entzungo dituen eta integratuko dituen sistema bat sustatuz.



07 GENERO-JUSTIZIA SUSTATZEA

Hospitalitate erradikalak berekin dakar onartzea asimetriak daudela baliabideak, aukerak eta erabaki-guneak eskuratzeko orduan, eta horrek bereziki eragiten die emakumei eta neskei.

Egiturazko desberdintasun horiek arrisku berezietara eramaten dituzte emakume eta neskato migratzaileak, hala nola pobreziaren feminizazioa, indarkeria-mota askotara (fisikoa, psikologikoa eta sexuala), sexu-esplotaziorako salerosketara eta lan-esplotaziora. Indarkeria horren agerpen espezifiko bat zainketen gainkarga da, bizitzaren jasangarritasunerako funtsezkoa den lan hori ikusezin bihurtzearekin eta aintzat ez hartzearekin batera. Hospitalitatearen kulturatik abiatuta, ezinbestekoa da asimetria horien haustura sustatzea eta zaintza erantzukizun etiko eta politiko partekatua gisa hartzea.

08 ERABATEKO PARTE-HARTZERANTZ AURRERA EGITEA

Hospitalitatea gonbita da pertsona migratzaileen parte-hartzea bermatzeko, batez ere tokiko komunitateetan inklusio-prozesuak erraztuko dituzten elementuen artean.

Bakeari ateak irekitzen zaizkio, onartzen denean migratzaile eta errefuxiatuak “ez direla esku hutsik iristen: beren ausardiaren, gaitasunaren, energien eta nahien aberastasuna ekartzen dutela berekin” (Francisco, 2018, 3. or.). Parte-hartzean aurrera egitea, iristen den pertsonaren historian benetako interesa sortzea da, jasotzen dituztenen bizitza aberasten duten “bere kulturako altxorak” aurkitzeko, eta tokiko komunitateen barruko integrazio-prozesua bultzatzeko, etorkizun partekatua hori eraikitzen laguntzeko.

09 GIZARTE- ETA INGURUMEN-JUSTIZIAR EN LENTEAK ERABILTZEA

Hospitalitate erradikalak esan nahi du Etxe Komun batean bizi garela eta hura zaintzea erantzukizun partekatua dela onartzea.

Gizarte- eta ingurumen-justiziaren begiradari esker, ohartzen gara klima-larrialdiek areagotu egiten dituztela egungo desberdintasunak, eta bidegabekeria berriak sortzen dituztela: pertsona askok mugitzeko erabakia hartu behar izaten dute. Erantzukizun partekatua ezagutza zientifikoa, tokiko ezagutzak eta ekintza publikoa eskatzen ditu.

10 MUNDUAN HOSPITALITATE-SAREAK ERAIKITZEA

Gizartean hospitalitate-kultura handiagoa eraikitzeko, herrialde guztietan askoz pertsona gehiagok batera egin behar dute ahalegina.

Hospitalitatea etikoa da, politikoa, eguneroko ekintza eta praktika partekatua dira. Hospitalitate ona espiritualtasunaren bihotzean dago. Hospitalitatea giza kulturaren zutabe bat da. Hospitalitate ona guztiontzako mundu hobea imajinatzeko eta haren alde egiteko aukera da. Bakerantz zabalitzen den atea da. Ezinbestekoa da sareak josten jarraitzea, berriazko erakundeetatik eta testuinguruetatik harago, erantzun integrala bultzatzeko, behartutako migratzaileen ibilbidean laguntzeko, jatorrian, joan-etorrian, helmugan eta itzuleran.

